

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria UHUN-Iruñan 2012-2013 ikasturtearen irekiera ekitaldian izan da

Unibertsitateak 4.457 ikasle izan zituen joan zen urtean, kopururik handiena bere sorreratik 1973. urtean

Miércoles, 03 de octubre de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UHUN) Iruñako egoitzan 2012-2013 ikasturtearen irekiera ekitaldian izan da gaur arratsaldean.

Ekitaldia unibertsitatearen areto ospetsuan burutu da eta bertan izan dira, besteak beste, José Iribas Hezkuntza kontseilaria, Ana María Marco UHUNeko idazkari nagusia, José Luis Martín Iruñako zentroko zuzendaria, bai eta unibertsitateko irakasleak, ikasketak amaitu berri dituzten ikasleak eta euren senitartekoak ere.

Ekitaldian iazko memoria irakurri da. Gogora ekartzekoa da joan zen urtean matrikulazio errekorra hautsi zuela zentroak 4.457 ikaslerekin. Matrikulatutako ikasle kopurua %11 hazi zen aurreko ikasturtearekin alderatuz, hau da, 445 ikasletan.

Lehendakariak unibertsitatearen ahalegina eskertu du ikasle kopuruaren handitzea dela eta. Eskaerara egokitzeko ahalegina eskertu du, “kalitatearekin eta zehaztasunarekin” eginiko lana dela esan du.

Yolanda Barcinak gogorarazi du “prestakuntza ona eta errentagarria dela pertsonaren ikuspuntutik”, baita Foru Komunitatearen aldetik ere, bere garapenean “erabakitasunez” eragin dezakeelako.

Bere sorreratik, 1973. urtean, 78.550 ikasle baino gehiagok ikasi dute Iruñako zentroan eta 1.600 baino gehiagok amaitu dituzte euren ikasketak unibertsitateak eskaintzen dituen 27 tituluetako batean. Horietako 39k joan zen ikastutean bukatu zituzten ikasketak eta gaurko ekitaldian diploma bat jaso dute.

Era berean, 20 urtez klaseak eman dituzten hiru irakasleri ohorezko



2012-2013 ikasturtearen irekiera ekitaldia UHUN Iruñan. Ezkerretik eskubira: María José Asiáin NUPko irakasleen errektoreordea, Ana María Marcos UHUNeko idazkari nagusia, Barcina Lehendakaria, José Luis Martín UHUN-Iruñako zuzendaria eta María Iraburu UNko irakasleen errektoreordea.

bereizgarria eman zaie: Francisco Javier Faulín Fajardo Matematika departamentuko irakasleari, Teodoro Hernández de Frutos Gizarte Politikak eta Soziologia departamentuko irakasleari eta María Jesús Úriz Pemán, Filosofia departamentuko irakasleari.

Irekitze-hitzaldia Ana Fernández Militino UHUNko irakasleak eman du, probabilitate, estatistika eta egiaren inguruan. Ekitaldia Vivace laukoteak eskainitako musikarekin amaitu da.

Iruñako UHUNak 27 titulazio, 25 eta 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatean sartzeko ikastaroak, formakuntza iraunkorra, Bolonia planera egokitutako graduondokoak, 50 urtetik gorakoentzako UNED Senior programa eta ingeleseko ikastaroak. Matrikulazio epea zabalik dirau datorren urriaren 18 arte.